

«Udalak politika orokorra handitasunaren mesedetan jarri du»

Jose txo Ibazeta EHko zinegotzia Arrasate kalean jaioa da, baina hala ere, Parte Zaharreko bizilaguna da. 37 urtekoa, ezkontuta dago eta alaba bat du. Gaztetan Mundaizen ikasi eta ondoren, Informatikako programadore titulua eskuratu zuen. Politikari herri mugimenduan ekin zion.

Besteak beste, kirola egitea eta prentsa zein aldizkariak irakurtzea gustuko ditu. Gaur egun, Kultur Udal Patronatuko funtzionaria da, baina eszedentzian dago.

Olaia Razkin

PSE-EEK eta PPK Udal Gobernuak osatu zutenean, Euskal Herritarrok-ek Donostia espainiarra eta eskuindarra izango zela adierazi zuen. Hala gertatu al da?

Tamalez, gure susmoak bete dira. Alderdiok sinatutako ituna, udal kudeaketarako ezezik, egungo esparru inposatzailerari eusteko ere erabili dute. Donostian nahiz Euskal Herri osoan itunak balio estrategikoa hartu du. Hemengo akordioa aitzindaria izan da, gainera. Gizarte arloari dagokionez, itun hau liberalismo sutsuenaren ispilua litzateke, ekimen pribatuen aldeko jarrera garbiak bultzatu dira eta gizarte eragileei, aldiz, udaletxe-ko ateak itxi zaizkie.

Oro har, zein balorazio egiten duzu Udal Gobernuak orain arte egindako lanaz?

Gure ustez, legealdi hasieran boterea banatu zuten, besteak beste, goi mailako karguak bikoiztuta, hirigintzan, esaterako. Bi alderdiek, PSE-EEK eta PPK, hirigin-

tza kudeatzeko ardura izan nahi zuten eta horrexegatik garai bateko kargu bakarra bikoiztu zuten. Beraz, gaur egun esparru horretan bi zuzendari daude eta argi dago nork ordaindu behar dituen soldatak. Geroztik, alderdien arteko lehia nagusitu da eta helburuak antzekoak diren arren, protagonismo bila dabiltza. Honi buruz, balorazio bakarra egiten dugu, Maria San Gil eta Odon Elorza, hiritarron interesen alde egin beharran, nor bere irudi publikoari begira lanean ari direla.

Zer iruditzen zaizu Euskararen Plan Orokorra?

Begibistakoa da euskara ez dagoela udal agintarien lehentasunen artean. Sozialistek euskararekiko jarrera epela badute, popularrena are hotzagoa iruditzen zaigu. Plan orokorra onartzeko prozesua oso motel doa, epeak gainditu eta data berriak ipintzen ari dira. Alkateak dioenez, euskararen aldeko prozesuak iraultza lasaia behar du izan, baina une honetan lasaitasuna axolagabekeriarekin parekatu dezakegu. Izan ere, ez dugu ikusten euskararen aldeko borondate



Jose txo Ibazetaren esanetan, gaur egun plazak eta auzoak h

aktiborik, eta hamaika adibide dugu.

PSE-EEren eta PPren artean ez dago adostasunik aurtengo aurrekontuei buruz. Dena den, zenbait ideia mahai-gainean daude. Zer deritzenu? EHren esku balego, zeri emango zenikete lehentasuna?

Gure lehentasuna aurrekontuak herrikoiak izatea da. Horretarako, donostiarren partaidetza bultzatu behar da. Hori

“Euskara ez dago udal agintarien lehentasunen artean”



merkataritzaren guneak betetzen ari dira. Euskal nortasunari dagokionez, gizarte eragileei esker bizirik dirauela dio.

ez da Donostian egin eta beraz, ildo horretatik, EHn proposamen zehatzak egin ditugu, baina ez dira aintzat hartu. Dena den, oraingo aurrekontu proposamenaren txostenak 700 bat orrialde badi-tu, guk hamar besterik ez ditugu eskuratu eta horrexegatik, ezin dugu balorazio sakonik egin. Aurrera egitekotan, pertsonal gastuen igoeraren ondorioz, gastu arruntaren gainontzekoa izoztea salatzea litzateke. Izan ere, eduki soziala duten ekimenak deuseztatuta geratuko lirateke. Gazteria, emakumea, etxebizitza, ingurumena, herritarren partaidetza, ongizatea... Gure eskuetan egongo balitz, arlo hauetan esfortzu ekonomiko handi-ago egingo genuke.

Donostiako EHk etxebizitzaren arazo larria behin eta berriro mahaigainean jartzen du. Hala ere, ez zaudete ados Auditz-Akularreko proiektuarekin. Zenbaiten ustez, kontraesana da.

Guk, lehenik eta behin, eztabaida zabala eta parte hartzailea eskatu dugu. Alegia, egitasmo handia denez, funtsezkoa da adostasun zabala lortzea eta horretan altzatarrek badute zeresana.

Altzan sekulako jendetza bizi da, baina azpiegitura aldetik, berriz, nahiko gaizki dago. Auditz-Akularreko proiektua etxebizitzaren arazoa konponduko duela esanez saldu dute. Baina kea saltzen ari dira. Ez dakigu etxebizitzak zein prezioetan salduko diren, nola egingo diren...

Etxebizitzaren arazoari aurre egiteko, hutsik dauden etxebizitzei zerga bereziak ezartzea proposatu duzue hainbatetan. Proposamenak, ordea, ez du orain arte aurrera egin...

Urtero egiten dugu proposamena. Neurri hau ezartzea zaila da: zergen nondik-norakoak zehaztea, hutsik dagoen etxea zein den finkatzea, errolda bat egitea.... Azterketa sakona egin beharko litzateke. Prozesu zaila da, buruhauste galantak ekarriko bailizkiguke, baina hala ere, beharrezkoa da.

Zer azpiegitura falta du Donostiak?

Auzoz auzo errepeasa egin beharko genuke eta guztietan topatuko genituzke premiak. Batzuetan Udalak, azpiegitura handiak eraikitzeko, ekonomia interesei lehentasuna eman die, auzoz-auzo egin beharreko egitasmoak alde batera utzita. Finean, politika orokorra handitasunaren mesedetan jarri dute, gainerako gauza txikiak baztertuta.

Azken urteotan Baiona-Donostia euro hiria hitzetik hortzera dabil. Hainbat ekimen abian dira eta beste batzuk, mahaigainean. Zer ekarriko digu proiektu honek?

Lehendabiziko galdera hau da: nola-ko eduki soziala du plan honek? Guk behintzat ez dugu bakar bat ere aurkitu. Azpiegitura beldurgarria eta erraldoia da. Planaren emaitzak superportua eta birmoldaketa handiak dira eta niri, behintzat, "hiper", "super" eta antzeko aurrizkiek beldurra ematen didate. Aitzitik, egitasmoak ez die herritarren beharrei erantzuten. Beraz, guk ez diogu inongo abantailarik ikusten, gutxi batzuen etekin ekonomikoa besterik ez.

Donostia berezko izaera galtzen ari dela diote batzuek, gero eta uniformeagoa dela, hain zuzen...

Gizarte bizitzaren erreferenteak galtzen ari dira. Erdi Aroan katedralak eta plazak jendearen elkargune ziren eta gaur egun, merkataritzaren gune handiak dira garai hartako katedralak eta plazak.

**Baiona
-Donostia
hiriak gutxi
batzuen etekina
besterik
ez du
ekarriko**

Gizarte bizitza merkataritzaren guneetan egiten hasi da Donostian, Bretxan edo Garberan, adibidez. Plaza eta auzoak hustu eta gune horiek betetzen ari dira. Euskal nortasunari dagokionez, Udala Gobernuaren programak ez du aipamen bat ere egiten, eta izaera hori sustatzeko, ez dugu Udalaren ekimenik ikusiko. Dena dela, gizarte eragileen lana nabarmentzekoa da eta haiei esker, euskal nortasunak bizirik dirau gurean.

